



GOBERNU BATZARRA

2024.11.19

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko azaroaren hemeretziaren, 10:00etan, bigarrenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gaitzerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia
Aitor Agirresarobe Murgi

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2024ko azaroaren 12koa.
2. Nura Gizarte Elkarte (G20779187) enpresari adjudikatzea Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua.
3. Onartzea La Caixa Fundazioarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea.
4. «20.1 Amarotz Paper-Fabrika» azpiesparruko urbanizatze jarduketaren programaren lehen aldaketa. Behin betiko onespina.
5. Dekretu honen berri ematea:
2024/2523 Dekretua: 2024/45 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO AZAROAREN 12KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.



2. NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) ENPRESARI ADJUDIKATZEA TOLOSAKO UDALERRIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZEKO ZERBITZU-KONTRATUA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Unitate sustatzaileko teknikariak igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

2024ko abuztuaren 20an Europar batasuneko Aldizkari Ofizialean (DO S: 161/2024 499858-2024) argitaratu zen iragarkia.

BIGARRENA.- 2024ko abuztuaren 19ko Alkatetza Dekretuaz, besteak beste, Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratuaren espedientea onartu zen eta hasiera eman zion lizitazioari, 2024ko uztailaren 17ko 2024/1719 alkatetza dekretuaren bitartez, alkate-lehendakariak berenganatu baitzituen Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetutako eskumenak.

HIRUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epean, EULEN SERVICIOS SOCIOSANITARIOS, S.A. (A79022299) eta NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresak aurkeztu zuten proposamena.

LAUGARRENA.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2024ko azaroaren 14an, kontratazio-mahaiak proposatu zion kontratazio-organoari erreferentzian aipatutako kontratua NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari adjudikatzea honako baldintza nagusi hauetan:

- Prezioa urtean: 608.376,32 euro, BEZa salbuetsita subjektuarengatik.
- Egikaritze epea: Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin.



BOSGARRENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Toki-entitateetako alkateen eta lehendakarien eskumena izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek guztiak: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, obra-emakidako kontratuak, zerbitzu-emakidako kontratuak eta administrazio-kontratu bereziak, baldin eta haien balio zenbatetsia ez bada aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino gehiago ere; berdin gertatuko da urte anitzeko kontratuen kasuan ere, haien iraupena ez bada lau urtekoa baino luzeagoa, balizko luzapenak barne, eta, betiere, urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino gehiago ere.

2. Osoko Bilkuraren eskumena izango da, kontratazio-organo den neurrian, aurreko apartatuan aipatutako kontratuak egitea kontratuaren balioagatik edo iraupenagatik toki-entitateko alkatearen edo lehendakariaren eskumena ez denean aurreko apartatuak xedatutakoarekin bat. Halaber, Osoko Bilkurari dagokio lege honen 121. artikuluan aipatzen diren administrazio-klausula orokorren agiriak onestea.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 1.277.590,27 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako eta Udalaren aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a arteko balio zenbatetsia duten kontratazioetan, alkate-lehendakariari kontratazio-organo gisa ematen dizkion eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

BIGARRENA.- NURA GIZARTE ELKARTEA (G20779187) enpresari adjudikatzea Tolosako udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzu-kontratua honako baldintza nagusi hauekin:

- **Prezioa urtean:** 608.376,32 euro, BEZa salbuetsita subjektuarengatik.
- **Egikaritze epea:** Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin.

HIRUGARRENA.- Adieraztea enpresak lizitazioa arautzen duten pleguetan xedatutakoa bete beharko duela, inolako erreserbarik gabe.

LAUGARRENA.- Erabaki horiek jakinaraztea interesdunari, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondare Azpisailari.

3. ONARTZEA LA CAIXA FUNDAZIOAREKIN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako Udaleko erregistroan, 2024ko martxoaren 7ko datarekin eta 3500 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Fundación Bancaria Caixa D'Estalvis I Pensions de Barcelona erakundearen izenean, G58899998, Monserrat Buisan Gallardo ordezkariak, 35021752C, honako eskaera hau egin duela:

<<Firma de convenio Fundación "La Caixa" Ayuntamiento de Tolosa>>

BIGARRENA.- 2012. urtean sinatu zuen lehendabizikoz Tolosako Udalak hitzarmena "LA CAIXA" erakundearekin, Tolosako udalerrian adineko pertsonentzako programa eskaintzeko.

Aipatutako urte horretatik aurrera modu iraunkorrean eskaini da Iturriza Elkarteak kudeatzen duen zentru sozio-kulturalean gaitasun digitaletan ahalduntzeko informatika



aula eta gizarte partehartzea eta boluntariora sustatzeko ekimena Goienetxe fundazioarekin lankidetzan.

Bi zerbitzu horiek harrera egokia eta balorazio positiboa jaso izan dute urte horietan zehar.

Gizarte zerbitzuak eta Osasuna Sailak La Caixa Fundazioaren ordezkari teknikoekin izandako hartu-emanen adostu zen hitzarmen berria kudeatzeko proposamena. Hain zuzen ere, aurreko lankidetzaren hitzarmenak 2023ko abenduaren 31rarteko indarraldiaren ondoren luzapena egiteko aukera ematen bazuen ere, erakundeak berak adierazi zuen hitzarmen berria sustatzea komeni zela, informatika-gelako materiala berritzeko konpromisoa hartua zuelako erakundeak, eta errealitate berri hori islatzea eta material horren zaintzarako konpromisoak jasoz.

Beraz, 2023 abenduaren 31ean iraungia zen azken hitzarmena, eta 2024 urtean "LA CAIXA" erakundeak lankidetzaren hitzarmen hori berritzeko proposamena luzatu zion Udal honi, 2024-2026 urteetako indarraldia izango duena.

Hitzarmen hau oraindik sinatu gabe egonagatik, erakunde honek aurrera egin du informatika gela berritzeko bere ekimenean, eta formazio ekintzak ere gautzen jarraitu dute, zerbitzuan inolako etenik egin gabe.

KONTUAN HARTURIK

Gizarte zerbitzuen eta Osasunaren Sailean aztertu da "LA CAIXA" erakundeak egindako proposamena, eta arduradunak 2024ko azaroaren 4an sinatutako txostenean udalerrri honen interesekoa dela irizten duela adierazi du eta honako proposamena egin du:

LEHENA.- "LA CAIXA" erakundearekin lankidetzaren hitzarmena onartzea eta sinatzea, adineko pertsonentzako programa eskaintzeko Tolosan ditugun bi zentru sozio-kulturaletan.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia izango da 2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa. Ondoren, bi aldeek adostasunarekin, urtebeteko bi luzapen egiteko aukera izango da.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenak eragindako konpromisoari dagokienean, Tolosako Udalak bermatuko du formazio-eskaintzak garatzeko beharrezko diren espazioak baldintza egokian eta beharrezko hornidurekin izatea, izan zuzenean ordainduta edo izan zentru sozial horiek kudeatzen dituzten elkarteekin dituen lankidetzaren edo dirulaguntza prozedura bidez.

Bestalde, Tolosako Udalak sustatuko du harremana informatika-gelak behar bezalako zaintza izan dezan beharrezko konpromisoa Iturriza Elkartearekin.

Era berean, "LA CAIXA" erakundeak bere gain hartuko ditu osorik formazio ekintzak garatzeko beharrezko baliabide tekniko, material eta giza-baliabideei dagozkionak, eta baita ere informatika-gelako ekipo informatikoen ikus-entzulezko materialen eta altzarien mantentze lanak egiteko ardura, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ongi funtzionatzen dutela bermatzeko.



LAUGARRENA.- Hitzarmena sinatzearekin batera, egungo formazio eskaintzaren informazioa zabaltzeko komunikazio ildoak aztertuko da erakunde arduradunarekin, eta formazio eskaintza berriak ezartzeko proposamena landuko da, Iturriza elkartearekin eta Harizpe elkartearekin lankidetzan, egungo eskaintza zabaltzeko eta osatzeko

Jarraian, 2024ko azaroaren 12an, Idazkaritzako teknikari juridikoak txosten juridikoa sinatu du honako proposamenekin:

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta La Caixa Fundazioaren arteko Hitzarmena sinatzearen **aurkako** txostena egitea, txosten juridiko honetan zehaztutako puntuak konpondu bitartean.

BIGARRENA.- Hitzarmeneko 6. puntua kentzea, bertan aipatzen denak publizitatearen eta lehiaren printzipioak urratzen dituelako.

HIRUGARRENA.- Hitzarmeneko 7.1.a) puntuan Udaleko datu-babesen delegatuaren informazioa zehaztea.

LAUGARRENA.- Hitzarmeneko 7.2 puntua kentzea, bertan galdatzen den akordioak ez daukalako legezko oinarririk.

BOSGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako hitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

ZAZPIGARRENA.- Erabaki hau Kontuhartzaitza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei jakinaraztea.

Era berean, 2024ko azaroaren 14an Oinarrizko betekizunen aurretzeko fiskalizazio eta/edo kontu-hartze mugatuaren txostena sinatu du Kontu-hartzaile akzidentalak fiskalizazio txostenaren ondorio hauekin:

Lokalaren erabilera baimenari lotutako alderdi ekonomikoari dagokionean, ondorengo faltako litzateke:

- alde batetik, txosten teknikoan adieraztea, ea norena den lokalean sortu daitezkeen konponketa eta birjartze gastu txikiei erantzuteko betebeharra. Tolosako Udalarena balitz gastu horiek zein mantenu gastuak ordaintzearen erantzukizuna, justifikatu egin beharko litzateke erabiltzaileak gastu horiek bere gain ez hartzearen proposamena.

- bestetik, erabakiak jaso beharko luke:



- norena den mantenu, konponketa eta birjartze gastu txikiak bere gain hartzeko betebeharra
- zeintzuk diren hitzartu beharreko aseguruak eta zein epe dagoen aseguru polizen justifikazioa eta dagozkien ordainagirien ordainketak aurkezteko

Horiek ikusita, Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Saileko arduradunak txosten tekniko berria sinatu du, eta hitzarmen proposamen berria aurkeztu du, hasierako edukiak egokituta, 2024ko azaroaren 14ko datarekin.

Azkenik, Idazkaritzako teknikari juridikoa txosten juridiko berria sinatu du 2024ko azaroaren 15eko datarekin, honako proposamen hauek jasoz:

LEHENA.- Tolosako Udalaren eta La Caixa Fundazioaren arteko Hitzarmena sinatzearen aldeko txostena egitea, betiere txosten juridiko honetan zein txosten teknikoan zehaztutako baldintzak betetzearen menpe.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako hitzarmena onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikulua b) atalean xedaturikoarekin bat.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Kontuhartzailtza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei jakinaraztea.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- "LA CAIXA" fundazioarekin lankidetzat hitzarmena onartzea eta sinatzea, adineko pertsonentzako programa eskaintzeko Tolosan ditugun bi zentru sozio-kulturaletan.

Hitzarmenak honako klausula hauek izango ditu:

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da Tolosako Udalari lotutako adinekoentzako gizarte-zentroetan La Caixa fundazioaren Adinekoen Programa garatzeko esparrua ezartzea. Programa horren bidez, La Caixa fundazioak zentro horien esku jartzen du erabiltzaile diren adinekoentzako prestakuntza-jardueren eta gizarte-proiektuen sorta bat. I. eranskinean daude deskribatuta.



II. eranskinean zehatz deskribatuta daude Adinekoen Programa osatzen duten prestakuntza-jarduerak eta gizarte-proiektuak, eta horien jarduera-ildoak, bai eta horiek antolatzeko eta kudeatzeko kontuan hartu beharreko prozedurak ere.

Bigarrena. Alderdien konpromisoak

2.1. Tolosako Udalaren konpromisoak

Alde batetik, Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du jarduerak eta proiektuak bultzatu, horiei buruzko informazioa eman eta horietan laguntzeko, eta lagundu egingo du horiek behar bezala gauzatzeko behar den antolaketan.

Era berean, Tolosako Udalak bermatuko du hitzarmen honetan aurreikusitako prestakuntza-jarduerak behar bezala garatzeko behar den espazioa, eta bere gain hartuko du espazioak behar bezala funtziona dezan egin beharreko zaintza- eta mantentze-lanak, eta horixe izango da Tolosako Udalak hitzarmen honen harira bere gain hartuko duen konpromiso ekonomiko bakarra.

Bestalde, Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du La Caixa fundazioarekin egindako hitzarmenean eragile proaktiboa izateko zentroko informatika-gelan instalatutako ekipo informatikoak behar bezala zaintzeko eta erabiltzeko.

Era berean, ikasgeletan ekipo informatiko eramangarri berriak instalatu, eta hala, kalitatezko eta errendimendu handiko zerbitzua eskaintzeko, eta prestakuntza eta zerbitzuen edukia zabaltzeko eta modernizatzeko —horien balio-aniztasuna ahalbidetuta—, Tolosako Udalak konpromisoa hartzen du III. eranskineko jardunbide egokien gida betetzeko.

Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin batera, ezinbestekoa izango Udalak izendatutako zentroko eragile batek ere sinatzea La Caixa fundazioaren ikasgeletako ekipo informatikoak kudeatzeko eta erabiltzeko protokoloa.

2.2. La Caixa banku-fundazioaren konpromisoak

La Caixa fundazioak, bere aldetik, II. eranskinean deskribatutako jarduerak eta proiektuak bultzatzeko konpromisoa hartzen du, eta, horretarako, behar diren baliabideak jarriko ditu, eta soilik jarduera horiek garatzeko izango dira.

La Caixa fundazioak bere gain hartzen du, halaber, informatika-gelako ekipo informatikoen, ikus-entzunezko materialen eta altzarien mantentze-lanak egiteko ardura, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ongi funtzionatzen dutela bermatzeko.

La Caixa Fundazioak Erantzun zibilar buruzko aseguru indarrean izango du, Tokiko Erantzunkizun Zibila (responsabilidad civil locativa) barne hartzen duena. Beraz, aseguru honek estaliko ditu hitzartutako zerbitzua ematerakoan erabiltzaileak hirugarrenei sorturiko kalteak, lokalaren jabetzari eragindakoak barne.

Era berean, La Caixa fundazioak Tolosako Udalarari behar duen informazioa jakinarazi eta emango dio esku hartzen den lurraldeetan proiektuak duen bilakaerari buruz.

Hirugarrena. Jarraipen Batzordea

Hitzarmenaren jarraipena egiten eta hitzarmena betetzen laguntzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, gutxienez, Tolosako Udalaren bi ordezkari eta La Caixa fundazioaren bi ordezkari osatua.



Jarraipen Batzordeari, besteak beste, honako eginkizun hauek dagozkio:

- a) Laneko plana eta alderdiek garatu beharreko eginkizunak definitzea, betiere, errespetatuta zentroetan laneko plana ezartzeko egutegia eta proiektu zein jarduerak gauzatzeko espazioen definizioa.
- b) Aurreikusitako jarduerak koordinatzea eta haien jarraipena egitea.
- c) Boluntariotzari buruzko gaietan lankidetzan aritzeko proposamenak aurkeztea.
- d) Dokumentu honetan adostutako lankidetzaz baldintzak betetzen direla zaintzea.

Batzorde hori gutxienez urtean behin bilduko da, eta alderdietako edozeinek behar adina aldiz deitu ahal izango du.

Laugarrena. Ebaluazioa

Alderdiek adostu dute ebaluazio bat egingo dietela La Caixa fundazioak adinekoen zentroetan sustatutako jardueretako parte-hartzaileei, eta datu pertsonalak ere eskuratuko dituztela. Garatutako jarduerak aztertzeke, haien jarraipena egiteko eta hobetzeko bilduko dira datu horiek, ez beste ezertarako, eta une oro bermatuko da lortutako informazioaren konfidentziasuna eta segurtasuna.

Datu horiek ez dira erabiliko aipatutakoez bestelako helburuetarako, ez badute behintzat parte-hartzaileek horretarako berariazko baimena ematen. Era berean, dagozkion protokolo eta neurriak ezarriko dira indarrean dauden datuak babesteko legeak betetzeko, eta hor sartuko dira datuen kudeaketa, biltegiatzea eta ezabatzea, aplikatu beharreko lege-xedapenen arabera.

Bosgarrena.- Hitzarmenaren zabalkundea

Edozein komunikabidetan hitzarmen honen ondoriozko jardueri buruz egiten diren aipamenetan, berariaz adierazi beharko da jarduera horiek Tolosako Udalaren eta La Caixa fundazioaren arteko lankidetzaren emaitza direla.

Dokumentu honetan jasotako eta batera sustatutako jarduerak hedatzeko elementuetan bi erakundeen irudi korporatiboa jarri beharko da.

Seigarrena.- Datu pertsonalen tratamendua

6.1. Parte-hartzaileen datuak

Esku-hartzaileen eta, hala badagokio, La Caixa Fundazioaren kontura jarduten duten langile/laguntzaileen datu pertsonalak beste alderdiak tratatuko ditu, zerbitzuak emateko hitzartutako harremana kudeatzeko. Tratamenduaren oinarria hitzarmenaren helburua betetzea izango da, eta harreman horrek irauten duen bitartean gordeko dira, baita ondoren ere, harreman horretatik erator daitezkeen erantzukizunak preskribatzen diren arte. Preskripzio-epe horiek amaitutakoan, datuak ezabatu egingo dira, edo, bestela, anonimizatu. Interesdunei honako hau jakinarazten zaie:

- a) Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna La Caixa Fundazioa da, eta datuak babesteko segurtasun-arduradunaren ordezkariaren harremanetarako datuak honako hauek dira:
 - La Caixa fundazioaren datuak babesteko ordezkariaren datuak: helbide elektronikoa: dpd@fundacionlacaixa.org; posta-helbidea: Avenida Diagonal 621



– 629, 08028 Bartzelona.

- b) Datu pertsonalak ez zaizkie hirugarren erakundeei lagako, salbu eta hornitzaileen esku-hartzea behar denean dagokion alderdiari zerbitzu bat emateko, bai eta datu pertsonalak laga behar direnean ere legezko betebeharrak betetzeko. Era berean, ez dira erabaki automatizatuen xede ere izango.
- c) Aldeek Europako Esparru Ekonomikotik kanpo kokatutako hornitzaileen zerbitzuak kontratatu beharko balituzte, kontratazio hori datuak babesteko araudian ezarritako baldintza guztiak bete ondoren egin beharko da, datuen pribatasuna babesteko beharrezkoak diren bermeak eta babesak aplikatuta. Informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan datuak babesteko ordezkariarekin edo, hala badagokio, segurtasun-arduradunarekin, adierazitako helbideen bitartez.
- d) Eskubidea dute haien datu pertsonaletara sartzeko, datu okerrak zuzentzeko, beharrezkoak ez diren datuak ezaba ditzatela eskatzeko, datuen tratamenduaren aurka egiteko edo tratamendua mugatzea eskatzeko, edo datuak eramateko eskatzeko. Horretarako, mezu bat bidali beharko diote datuak babesteko ordezkariari edo alderdietako edozeinen segurtasun-arduradunari, adierazitako helbideetan.

Datu pertsonalen tratamenduak araudia urratzen duela uste badute, erreklamazio bat aurkez diezaiokeete datuak babesteko ordezkariari edo, hala badagokio, segurtasun-arduradunari, dagokionaren arabera, edo Datuak Babesteko Espainiako Agentziari.

Azkenik, datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den araudia betetzen dela bermatzeko, alderdiek konpromisoa hartzen dute egindako datu-tratamenduaren berri emateko harreman honen esparruan alderdien kontura jarduten duten interesdunei, enplegatu/laguntzaile diren aldetik.

6.2. La Caixa fundazioak tratatutako onuradun potentzialen datu pertsonalak

Tolosako Udalarari komunikatu beharreko datu pertsonalei dagokienez, La Caixa fundazioak datu horiek tratatuko ditu, onuradun izan daitezkeenei programan izena emateko aukera eskaintzeko.

Aldi berean, adierazitako komunikaziotik eratorritako datu pertsonalak jasotzeari dagokionez, La Caixa fundazioak informatzeko betebeharrak beteko du, datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera, eta beharrezkoak diren segurtasun- eta antolaketa-neurriak ezarriko ditu. Era berean, La Caixa fundazioak bermatzen du une oro beteko duela datu pertsonalak babesteko araudia, jarduketara honen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

Nolanahi ere, La Caixa fundazioak programari buruzko edozein datu edo informazio ematen badiu Tolosako Udalarari, datu kuantitatiboak, zenbakizkoak eta/edo portzentajeak erabiliko dira jakinarazpen hori egiteko (alegia, datu disoziatuak: pertsona fisiko bat identifikatzeko aukerarik ematen ez dutenak, eta, beraz, datu pertsonalak babesteko araudia aplikatuz salbuetsita egongo direnak). Aurrekoa gorabehera, komunikazio horretan datu pertsonalak (hau da, bereizi gabeko datuak) badaude, beharrezkoak diren antolamendu- eta segurtasun-neurriak aplikatuko dira, bermatzeko datu pertsonalen tratamenduak eta/edo komunikazioak legitimazio-oinarri egokia duela, eta hala, La Caixa fundazioak interesdunei informazioa emateko betebeharrak beteko du datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin bat etorriz.



6.3. Alderdien erantzukizuna:

La Caixa Fundazioak indarrean den datu pertsonalak babesteko araudia aplikatuko du eta eska dakizkiekeen betebeharrak guztiak beteko ditu, eta hura izango direla horren erantzule bakar eta oso. Halaber, beharrezkoak diren lege-, antolamendu- eta segurtasun-neurriak aplikatzeko konpromisoa hartzen du La Caixa Fundazioak, eta, gainera, beste alderdia kalterik gabe mantenduko du edozein hirugarrenek (agintari eta erakunde eskudunak barne) eskatutako kalte-ordain eta/edo zehapenetatik.

Zazpigarrena. Indarraldia

Sinatzen den unean jarriko da hitzarmen hau indarrean, atzeraeraginezko ondorioak izango ditu 2024ko urtarrilaren 1era, eta 2026ko abenduaren 31ra arte izango da indarrean. Hasieran hitzartutako iraupena gorabehera, hitzarmena urtez urte luzatu ahal izango da, alderdiek berariaz hala adosten badute, gehienez ere beste bi urtez.

Zortzigarrena. Ez betetzearen ondorioak

Hemen jasotako klausulak ez betetzearen ondorioa izango da hitzarmena bertan behera uztea eta alde aurretik amaiera ematea..

Bederatzigarrena. Aldez aurretik amaiera ematea

Hitzarmen hau alde aurretik hutsaltzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

- Alderdien batek klausularen bat ez betetzea.
- Alderdien arteko adostasuna.
- Alderdietako edozeinek salatzea.
- Horiek betetzea eragozten duten lege- edo erregelamendu-xedapenak indarrean sartzea.

Hamargarrena. Lege aplikagarria eta men egitea

Hitzarmen hau Espainiako legeriaren arabera interpretatuko da. Zehazki, hitzarmen hau interes orokorreko jardueretarako enpresa-lankidetzarako hitzarmena da, irabazi-asmorik gabeko erakunde zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 25. artikulua babespekoa.

Hitzarmen honen interpretazioari aldatetari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen desadostasunak alderdien artean ebartziko dira, eta adiskidetze-modu posible guztietan saiatuko dira, adiskidetasunezko judizioz kanpoko akordio bat lortzeko. Halakorik lortzen ez bada, auzigaiak aztertze eskumena izango dute Bartzelonako jurisdikzio-organo eskudunek, eta alderdiek espresuki uko egingo diote beren foruari, desberdina bada.

BIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia izango da 2024ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra artekoa. Ondoren, bi aldeek adostasunarekin, urtebeteko bi luzapen egiteko aukera izango da.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenak eragindako konpromisoari dagokienean, Tolosako Udalak bermatuko du formazio-eskaintzak garatzeko beharrezko diren espazioak baldintza egokian



eta beharrezko hornidurekin izatea, izan zuzenean ordainduta edo izan zentru sozial horiek kudeatzen dituzten elkarteekin dituen lankidetzeta edo dirulaguntza prozedura bidez.

Zehazki, Iturriza Elkartek egingo du hornidura horien kudeaketa, bere urte osoko jarduera planaren eta eraikinaren mantenurako lan-lerroaren baitan.

Bestalde, Tolosako Udalak sustatu du informatika-gelak behar bezala zaintzeko konpromisoa Iturriza Elkartearekin.

Era berean, "LA CAIXA" fundazioak bere gain hartuko ditu osorik formazio ekintzak garatzeko beharrezko baliabide tekniko, material eta giza-baliabideei dagozkionak, eta baita ere informatika-gelako ekipo informatikoen ikus-entzulezko materialen eta altzarien mantentze lanak egiteko ardua, hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean ongi funtzionatzen dutela bermatzeko.

Horrekin batera, La Caixa Fundazioak Erantzun zibilari buruzko aseguru indarrean izango du, Tokiko Erantzunkizun Zibila (responsabilidad civil locativa) barne hartzen duena. Beraz, aseguru honek estaliko ditu hitzartutako zerbitzua ematerakoan erabiltzaileak hirugarrenei sorturiko kalteak, lokalaren jabetzari eragindakoak barne.

Fundazioak hitzarmen hau sinatzen denetik hilabeteko epean aurkeztu beharko dio betekizun honen justifikazioa Tolosako Udalari.

LAUGARRENA.- Hitzarmena sinatzearekin batera, egungo formazio eskaintzaren informazioa zabaltzeko komunikazio ildoaz aztertuko da La Caixa fundazioaren arduradunarekin, eta formazio eskaintza berriak ezartzeko proposamena landuko da, Iturriza elkartearekin eta Harizpe elkartearekin lankidetzan, egungo eskaintza zabaltzeko eta osatzeko.

BOSGARRENA.- Hitzarmenaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratzea, 19/2013 Legearen 8.1 artikuluan b) atalean xedaturikoarekin bat

SEIGARRENA.- Erabaki hau Kontuhartzaitza eta Diruzaintza, eta Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna Sailei jakinaraztea.



4. «20.1 AMAROTZ PAPER-FABRIKA» AZPIESPARRUKO URBANIZATZE JARDUKETA-PROGRAMAREN LEHEN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

IKUSIRIK

LEHENA.- 2024H1130001 zenbakidun espedienteari, UJPren aldaketari buruzko espedienteari, dagozkion aurrekariak:

- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko urriaren 28ko bilkuran, besteak beste, erabaki zuen behin betiko onartzea «20.1 Amartz paper-fabrika» azpiesparrua urbanizatzeko jarduketa-programaren (aurerantzean, UJP) Testu Bateratua, Orubide, SAK sustatua eta Fiark Arquitectos SLk idatzia. (B.5.1.20.1/2010/0001 urbanizatzeko jarduketa-programa)
- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko maiatzaren 28an, besteak beste, ondoren aipatzen den erabakia hartu du: Hasierako onespena ematea «20.1 Amartz paper-fabrika» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehengo aldaketa jasotzen duen dokumentuari. (2024ko maiatzaren 15ean aurkeztutakoa).
- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2024/06/07 (110 zk.) eta 2024/06/17ean (116 zk.) akats zuzenketa. Bestalde, udaletxeko taulan argitaratu zen 2024/06/17tik 2024/07/16ra bitartean eta web orrian 2024/06/17an. Azkenik, Berria eta Tolosaldeko Atarian 2024/06/18an eta El Diario Vascon 2024/06/24an argitaratu zen. Informazio publikoko epearen amaiera 2024/07/18an izan zen. Eta ez zen iradokizun/errekamaziorik jaso.

BIGARRENA.- Honako hauek dira adierazitako espedienteekin erlazionatutako gainontzeko espedienteak:

- **B.5.1.20.1/2009/0001 hiri ordenazioko plan berezia**
- **B.5.1.20.1/2010/0002 urbanizazio-proiektua**
- **B.5.1.20.1/2011/0001 birpartzelazio-proiektua**
- **B.5.1.20.1/2012/0001 hiri ordenazioko plan bereziaren aldaketa**
- **2021H105-0001. 20.1 AZPIEREMUAREN (AMAROTZ-PAPER FABRIKA) HAP-Baren 2. ALDAKETA**

Tolosako Udalbatzak, 2024ko urriaren 31ean, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

8. Bigarren aldaketa “20.1 amartz paper-fabrika” azpiesparruari buruzko hiri-antolamenduko plan bereziari (ohiko ingurumen ebaluazio estrategikoaren mende) behin betiko onespena ematea.

- **2021IHTP0015 lankidetzaren hitzarmena**



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Behean izenpetzen duen teknikariak egindako azterketa teknikoak:

II.1.- Txostenaren xedea

Txosten honen xedea dokumentua aztertzea da, aurkeztutako Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin betiko onartu aurretik.

II.2.- Programaren helburua eta eremua

Programa honek honako alderdi hauek jaso eta arautzen ditu:

- Egikaritze-unitatearen mugaketa.
- Egikaritze-unitatea garatzeko jarduketa pribatuaren araubidea zehaztea.
- Birpartzelazio-proiektua aldatzeko proposamena aurkezteko epeak zehaztea.
- Ondoriozko orubeak eta egiteke dauden urbanizazio-obrak eraikitzeko obrak egiteko faseak eta epeak zehaztea.
- 2. faseko urbanizazio-obra eta orubeei lotutako lurak lagatzeko epeak.

Beraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152.1 artikulua arabera UJPak jaso behar dituen zehaztapenak betetzen dira.

II.3.- Egiturazko antolamendua eta antolamendu xehatua betetzea

Urbanizatzeko jarduketa-programek ezin izango dute inola ere aldatu dagokion plangintzan ezarritako egiturazko antolamendua edo antolamendu xehatua. Hala ere, egikaritze-unitateak aldatzeko aukera badute, legean ezarritako baldintzetan.

Tolosako HAPOk, 2009ko martxoaren 3an behin betiko onartuak, 20.1 azpierenmuaren egiturazko antolamendua definitu zuen. Bertan 20.1 Amarotz paper-Fabrika eremu hau garatzeko Plan Berezi bat idatzi behar zela jasotzen zen.

Osoko Bilkurak 2010eko irailaren 28an «Amarotzeko paper-fabrika 20.1» azpierenmuaren Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren testu bategina onartu zuen.

Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak, 2013ko apirilaren 26an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion Amarotz Paper-fabrika azpiesparruko Hiri-antolamenduaren Plan Bereziaren Aldaketa Puntualari.

Geroztik, Uraren Euskal Agentziak (URA) 2014an egindako uholde-arriskuaren



eguneraketaren ondorioz antolamendu xehatua berriro aldatu behar izan da. Hala, 2024ko urriaren 31ean Tokiko Gobernu Batzarrak behin betiko onetsi zuen azpiesparru horretako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketa eta honen ingurumen-azterketa estrategikoa.

Aurkeztutako dokumentuak azpierzurako onartutako egiturazko antolamendua betetzen du, eta baita behin betiko onartutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketak zehaztutako antolamendu xehatua ere

II.4.- UJPak jaso behar duen dokumentazioa

Aurkeztutako dokumentuaren atalak honako hauek dira:

1. Aurrekariak, objektua eta dokumentuaren edukia.
2. UJPren zehaztapen juridiko-urbanistikoak.
3. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.
4. Eduki tekniko-urbanistikoa.
5. Kronograma.
6. Planoak.

Beraz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 155. artikulua araberak UJPak jaso behar dituen dokumentuak baditu.

II.5.- Eduki tekniko-urbanistikoa. Urbanizazio-aurreproiektua

Urbanizazioaren lehen faseko obrak gauzatuta daude; beraz, aurkeztutako Aurreproiektuak 2. Faseko urbanizazio obrak zehazten ditu.

Antolamendu berriak aparkaleku publikoak egokitzea aurreikusten du, eta birnaturalizazio-irizpideekin eta drainatze jasangarriko hiri-sistema batekin diseinatuko da; aisialdirako ere erabili ahal izango da. Gainerako espazioak ingurumen-eraberritze eta birnaturalizazio xedea izango dute.



Aurkeztutako aurreproiektuak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 153. artikuluan definitutako edukia betetzen du.

II.6.- Eremua garatzeko aurreikusitako epea; urbanizazio- eta eraikuntza-obren epeak eta faseak

Urbanizatze jarduketa Programaren Aldaketari Hasierako onspena eman zitzaionean behin betiko onarpena eman aurretik zuzenketa hauek egiteko eskatu zen:

- *Dokumentuak izapidetzeko kronograman adierazitako epe batzuk dagoeneko pasata daudenez; eguneratu egin beharko dira.*
- *Obrak gauzatzeko epeak ere eguneratu egin beharko dira; besteak beste, bigarren faseko urbanizazio obrak 2028 hasierarako amaituta egotea aurreikusi beharko da.*

Eskatutako aldaketak egin dira eta hona hemen dokumentuan planteatutako programazioa:

ESKU736da8f3-6579-4a4b-b137-f43af081c916



<<(…)

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

- I. Urbanizatzeko jarduketa-programek arautu eta, hala badagokio, faseka antolatzen dituzte hiri-lurzoru finkatugabeen eta lurzoru urbanizagarri sektorekatuan jarduketa integratuen garapena eta egikaritzea. Horretarako, zehaztapen hauek egiten dituzte:
- a) Kasuan kasuko jarduketa integratuen identifikazioa; beharrezkoa bada, jarduketon xede den egikaritze unitatea edo unitateak mugatu ahal izango dituzte, edo mugaketa hori aldatu.
 - b) Egikaritze publikorako edo pribaturako araubidea eta egikaritze horren sistema.
 - c) Jarduera integratuak exekutatzeko zehaztapen juridikoak, teknikoak eta ekonomikoak, eta, nolana ere, jarduketa horren gutxieneko edukien erregulazioa.
 - d) Egin beharreko obra guztiak eta urbanizatzeko-karga guztiak, eta horien kostuaren gutxi gorabeherako kalkulua.
 - e) Urbanizazio-obrak eta, halakorik baldin badago, eraikuntza-lanak egiteko denboraren programa.

UJPK ezin dute, inoiz, dena delako plangintzan zehazturik datozen ez egitura-antolamendua ez antolamendu xehatua aldatu. Hala ere, egikaritze-unitateak aldatzeko aukerak daukate, legean zehazturiko moduan egiten bada.

Jarduketa-programak hirigintza-plana onartzen den aldi berean edo geroago onartuko dira. Hirigintza plan horrek programen egikaritzea legitimatuko du, eta programen xede den egikaritze-unitatearen edo unitateen antolamendua edukiko du, hala egiturazkoa nola xehatua.

- II. Hau da aplikatu beharreko legeria:

- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 152. artikulutik 158. Artikulura eta 160. Artikulutik 165. Artikulura bitartekoak.
- Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 43. eta 44. artikulua.

- III. Jarduketa-programek egin beharreko urbanizazio-obrak zehaztu beharko dituzte, gutxi gorabeherako kostua zehaztuta, eta, gutxienez, honako alderdi hauek:

- a) Urbanizazioaren eskema bat, aurre-egitasmoen dagokien garapen-mailarekin azalduta.
- b) Urbanizazioari behar dituen horniketa-zerbitzuak emateko eskueran dauden baliabideak, lorgarriak direla justifikatuta.
- c) Hala euri-uren nola ur-beltzen hustubide-sarearen ezaugarri nagusiak, bai eta sare horrek arazketara artean sare orokorrekarekin edo orokorrekin dituen lotuneenak



ere.

- d) Aurreikusitako bide-sarearen zerbitzu-gaitasuna, ibilgailuen aparkalekuak barne.
- e) Urbanizazioari dagozkion gainerako zerbitzuak ezartzeko aurreikuspenak. Zerbitzu horien barruan sartuko dira, hala badagokio, informazioa edo telebista saioak garraiatzeko telekomunikazio-sareak edo kableak.
- f) Gasa banatzeko sarearen ezaugarriak, eta sare hori banaketa-sare orokorrera, haren garapenaren arabera, lotzeko aurreikuspena.
- g) Jarduketetako urbanizazioa azpiegitura-sareekin, komunikabideekin eta gainerako zerbitzuekin egokiro lotzea edo integratzea.
- h) Azpiegitura eta zuzkidura publikoetan, hala badagokio, behar den osagarria egikaritzea, plan orokorraren egiturazko antolamenduan aurreikusitako zerbitzua eman ahal izateko.
- i) Egikaritu beharreko urbanizazioaren eta, hala badagokio, eraikuntzaren obra eta elementu nagusien kalitateen memoria.

IV. Urbanizatzeko jarduketa-programek honako alderdi hauek ere arautu behar dituzte:

- a) Jarduera publiko edo pribatuaren araubidearen zehaztapena, eta jarduteko sistema.
- b) Xede dituen egikaritze-unitateen mugaketa, edo indarrean dagoen plangintzako aldaketa.
- c) Ekitatezko banaketarako proposamena aurkezteko epeak, desjabetze-sisteman xedaturikoa izan ezik.
- d) Urbanizatzeko lanak egiteko epeak. Jarduketaren faseak garatzeko lanen egutegia zehaztuko da, eta ateratako orubeetan eraikuntza-lanak egiteko epeak ere bai, halako lanik egotekotan.
- e) Udalari doan laga beharreko lursailen kokapenaren proposamena. Lursail horiek urbanizatzeko-gasturik eta bestelako kargarik gabe laga beharko dira, antolamenduak sorrarazitako gainbalioetan erkidegoak parte hartzearen kontzeptu gisa, lege honetan xedatutakoaren arabera.
- f) Jendea beste etxe batzuetara eramateko programa, halakorik behar izatekotan.
- g) Zuzkidura publikoetako urbanizazio-obra, lursailak eta, halakorik egotekotan, eskubideak lagatzeko epeak.

V. Aurreko puntuetan zerrendatutako dokumentazioaz gain, UJPk honako dokumentazio hau jasoko du:

- a) Memoria justifikatiboa, egikaritze-programazioa eta guzti.
- b) Urbanizatzeko-aurregitasmoa.
- c) Jarduerak izango dituen egikaritze-unitateen informazio-planoak eta mugaketa-planoak.
- d) Partzelen planoak, eta jarduketaren xede diren ondasunen eta eskubideen titularren zerrenda.



e) Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa. Jarduketaren xede diren ondasun eta eskubide guztien balorazioa ere jasoko du.

VI. Honako hauek egin eta sustatu ahal izango dituzte jarduketa-programak:

a) Udalek, eta haien menpe dauden edo haiek partaide dituzten erakunde edo entitateek, udal-plangintza egikaritzeko. Entitate sustatzaileak desjabetze ahalmenik ez duenean, udala izango da administrazio jardulea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, 16. artikuluan zehaztutako lurretan urbanizatzeko edo eraikitze-lanak egiteko; eta foru-aldundiek, 16.2 artikuluan zehaztutako lurretan era bereko lanak egiteko.

Halaber, ahalmen hori administrazio haien menpeko edo haiei atxikitako erakunde edo entitate publiko orori eman ahal izango zaio, helburu berarekin.

c) Herri-administrazioek, oro har, jarduketa integratuak burutuz sektore-eskumenak erabiltzeko.

d) Herri-administrazioek partizipatutako sozietate eta entitate pribatuak, jarduketa integratuen bidez beren helburua gauzatzeko.

e) Norbanakoek, berdin delarik lurren jabe diren ala ez. Lurrak aldi baterako okupatzeko baimena eman diezaioke, udalak, urbanizatzeko jarduketa-programa baten proposamena egin nahi duen edonori, behar duen informazioa jaso dezan, betiere desjabetzeari buruzko legerian xedatutakoaren arabera. Halaber, herri-administrazioen erregistro eta artxiboetan dagoen informazioa eta agiriak kontsultatu ahal izango ditu, haien araubide juridikoa eta funtzionamendua erregulatzeko legeria orokorraren arabera.

Gainera, urbanizatzeko jarduketa-programa alderdi batek eskatuta izapidetu ahal izango da. Izapidetzeko eskaria udal-erregistroan sartuko da, eta, horrekin batera, administrazioa ez diren pertsona edo entitateek egindako eskabideen kasuan, berme bat jarriko da, programak jarduketa integratuari dagokion eremua urbanizatzeko kalkulatzeko duen kostuaren % 1ekoa hain zuzen ere. Berme hori administrazioaren kontratuei buruzko legerian onartutako edozein eratan jarriko da.

VII. UJP hitzarmen bidez esleitzeko, beharrezkoa izango da hitzarmen bat sinatzea eta hitzarmen horretan gutxienez lurzorua jabetzaren %50 baino gehiagok zenbait konpromiso bere egitea. Zehazki, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160.2. artikuluan araututakoak.

VIII. UJP onartzeko eta esleitzeko prozesu osoan, publizitate aktiboaren eskakizunak bete beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.4 artikuluan eta gardentasunaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

IX. Prozedura honi jarraituko zaio:



- A) UJP jaso ondoren, eta aurkeztutako dokumentazioa eta dagozkion txosten teknikoak ikusita, udalak jarduketa-programaren hasierako onarpena onartu edo ezetsi egingo du, gehienez ere hilabeteko epean.
Alkatetzari dagokio UJPri onespina ematea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1.j) artikulua). Tolosako Udalarari dagokionez, ordea, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz bidez.
- B) Hasierako onespinen erabakiak dagokion iragarkia argitaratu beharra ekarriko du berekin. Iragarki horretan programaren edukien funtsezko elementuak jasoko dira, gutxienez hogei eguneko epean, jendaurrean jartzeko eta dagozkion alegazioak jasotzeko. Era berean, erabakia jarduketaren eraginpeko ondasun eta esku-bideen titularrei jakinaraziko zaie.
Halaber, eskuragarri egongo da udalaren egoitza elektronikoan.
- C) Alegazioak jaso ondoren, eta horiek ikusi eta kontuan hartuta, udalak urbanizatzeko jarduketa-programa behin betiko onartzea erabakiko du, gehienez ere bi hilabeteko epean, hasierako onespinen erabakia lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita.
Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, behin betiko onartu dela ulertuko da, betiere interesdunei jakinarazteko izapidea amaitu bada.
- D) UJP behin betiko onartzeko erabakia edo presuntziosko egintza lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu beharko da, edukien laburpen batekin batera. Eduki horien artean, gutxienez, honako hauek jasoko dira: eremuaren identifikazioa, sailkapena eta kalifikazioa, eremuari esleitutako hirigintza-eraikigarritasuna, jarduketa-sistema, aurrekontua eta urbanizazio-obrak eta, hala badagokio, eraikuntza-obrak egikaritzeko programazioa.
- E) Urbanizatzeko jarduketa-programari behin betiko onespina ematen zaionean, eremua garatzeko baldintzak ezarri beharko dira.
- F) Aldi berean burutu ahal izango dira urbanizatzeko jarduketa-programa onartzeko prozedura eta programaren xede diren egikaritze-unitateak kokatutako area edo sektoreko plangintza xehakatu onartzeko prozedura. Horrelakoetan, programako zehaztapenak aldatu edo egokitu egin beharko dira, hala badagokio, plangintza xehakatuari behin betiko onespina ematen zaionean.

AZTERKETA JURIDIKOA

I. UJPren lehen aldaketaren edukia.

Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.k (VISESA), Carlos Quindos Fernandezek ordezkatuta, 2024ko maiatzaren 15ean, udalean aurkeztutako UJPren lehen aldaketaren dokumentu berriak, eskatutako zuzenketekin, honako edukia dauka:

7. Aurrekariak, objektua eta dokumentuaren edukia.
8. UJPren zehaztapen juridiko-urbanistikoak.
9. Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa.
10. Eduki tekniko-urbanistikoa.



11. Kronograma.

12. Planoak.

Aurkeztutako dokumentuan ezartzen denaren arabera, UJPren lehen aldaketak «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko plan bereziaren bigarren aldaketaren zehaztapenak garatzen ditu, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren barruan.

Honela, adierazten da programak alderdi hauek jaso eta arautzen dituela:

- Egikaritze-unitatearen mugak.
- Egikaritze-unitatea garatzeko jarduketa-araubide pribatua zehaztea.
- Birpartzelazio-proiektua aldatzeko proposamena aurkezteko epeak zehaztea.
- Orubeak eraikitzeko obrak eta aurreikusitako urbanizazio-obrak egiteko fasea eta epeak zehaztea.
- 2. Faseko urbanizazio-obra eta orubeei dagozkien lurak lagatzeko epeak.

Kontuak izanik Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. (VISESA) sozietate publikoa Eusko Jaurlaritzarena dela %100ean, salbuetsita dago 2/2006 Legearen 158. artikuluan aipatzen den bermea ezartzeaz.

Hori horrela, adierazi daiteke UJPren lehen aldaketaren dokumentu berriak bat egiten duela Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean urbanizatze jarduketa-programentzat ezarritako agiri, zehaztapen zein edukiekin.

2. UJPren lehen aldaketaren zehaztapen juridikoak eta hirigintzakoak.

- Jarduketa pribatua, ituntze-sistemaren bidez:

Dokumentuan adierazten da aprobetxamendua sortzen duten lurzoruen jabe bakarraren izaeraren ondorioz, egikaritze-unitatea ituntze-sistemaren bidez garatu zela, jarduketa-araubide pribatuan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan eta hurrengoetan jasotako aurreikuspenekin bat.

Zehazki, 2011ko martxoaren 24an sinatu zen Tolosako Udalaren eta ORUBIDE SA enpresaren arteko egikaritze hitzarmena. Harez geroztik, antolamenduaren zehaztapenak asko aldatu dira eta bertan jasotako epeak ere igaro direnez, hitzarmena berritzeko beharra dago. Hau, ordea, ez da kronograman islatu.

- Egikaritze-unitatearen mugak:

Programak mugatzen duen egikaritze-unitateak «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpieroemu osoa hartzen du, plangintzak espazio askeen sistema orokorrean sailkatutako azalerak izan ezik.

- Ekitatezko banaketarako proposamena aurkezteko epea:

Aurkeztutako dokumentuan aurreikusten denez, birpartzelazio-proiektua aldatu



zein Tolosako Udalean aurkezteko, udalak izapidetu zein onesteko, hilabete bateko epea igaroko da; hirigintzako jarduketa-programa (HJP) behin betiko onesten denetik.

- Urbanizatzeko-lanak egiteko epeak:

Epeei dagokionez, jarduketa-programan adierazten da bi jarduketa bereiziko direla: alde batetik, 1. faseko urbanizazio-obra berriak egikaritzea, eraikuntza-obren osagarri gisa, HAPBaren 2. aldaketan 1, 2.1. eta 2.2. partzela gisa sailkatuta. Eta, bestetik, urbanizazio-obra berriak egikaritzea, azpierrekuaren hegoaldean, 2. fasearen barruan; horretarako, alde aurretik indarreko urbanizazio-proiektua aldatu beharko da.

Dokumentuan adierazten da jarduketa horiek aurreikuspen hauekin bat egingo dutela:

«URBANIZAZIO 1.FASEA (1.ETAPA, 2. ETAPA eta 3. ETAPA):

Lehen fasean, HAPBaren 2. aldaketan 1,2.1 eta 2.2 gisa sailkatutako partzelak urbanizatuta daude, orube gisa. Azaldu dugun moduan, HAPBaren 2. aldaketan aurreikusitako antolamendu berriaren ondorioz, urbanizazio-obra berriak egin beharko dira, eta osagarriak izango dira (2/2006 Legearen 195. art.) aipatutako partzelen eraikuntza-obrekiko.

Lehen fasean, halaber, hiru azpifase edo denbora-etapa aurreikusi dira:

- **1. etapa:** 2. aldaketan **2.1 partzela** gisa sailkatutakoa eta haren **urbanizazio osagarria**. Lehen etapa horretarako, urtebeteko epea aurreikusi da eraikuntza-proiektuak izapidetzeko, eta hiru urtekoa obrak egikaritzeko, hirigintzako jarduketa-programaren (HJP) 1. aldaketa behin betiko onesten denetik aurrera zenbatzen hasita. Lehen erabilerako lizentziarekin, urbanizazio osagarriari eta eraikuntzarik ez duten eta espazio publikoarekiko jarraitutasunean dauden lurzoruei dagozkien lurzoru eta lurak lagako dira.
- **2. etapa:** HAPBaren 2. aldaketan 2.2 partzela gisa sailkatutakoa eta haren urbanizazio osagarria. Obrak egiteko epea urtebetekoa izango da, eraikuntza-proiektuak izapidetzeko, eta hiru urtekoa obrak egikaritzeko, hirigintzako jarduketa-programaren (HJP) 1. Aldaketa behin betiko onesten denetik aurrera zenbatzen hasita. Lehen erabilerako lizentziarekin, urbanizazio osagarriari eta eraikuntzarik ez duten eta espazio publikoarekiko jarraitutasunean dauden lurzoruei dagozkien lurzoru eta lurak lagako dira.
- **3. etapa:** HAPBaren 2. aldaketan 1 partzela gisa sailkatutakoa eta haren urbanizazio osagarria. Proiektuak izapidetzeko epea urtebetekoa izango da, eraikuntza-obrak amaitzen direnetik eta 2.2 partzelan aurreikusitako urbanizazio-obra osagarriak amaitu eta Udalean jasotzen direnetik aurrera zenbatzen hasita, eta hiru urtekoa obrak egikaritzeko, eraikuntza-obrak amaitzen direnetik eta 2.2 partzelan aurreikusitako urbanizazio-obra osagarriak amaitu eta Udalean jasotzen direnetik aurrera zenbatzen hasita. Lehen erabilerako lizentziarekin, urbanizazio osagarriari eta eraikuntzarik ez duten eta espazio publikoarekiko jarraitutasunean dauden lurzoruei dagozkien lurzoru eta lurak lagako dira.



URBANIZAZIO 2.FASEA (4. ETAPA):

Azaldu dugun moduan, bigarren faseari dagozkion lurak urbanizatu gabe daude. Beraz, fase honetan bi jarduketa bereizten dira:

- *Alde batetik, urbanizazio-proiektuaren aldaketa prestatu eta Udalean aurkeztea, HAPBaren 2. aldaketan ezarritako urbanizazio berriarekin bat, eta hori sei hilabeteko epean aurkeztuko da, HJP behin betiko onesten denetik aurrera zenbatzen hasita.*
- *Bestetik, urbanizazio-proiektuaren aldaketan aurreikusitako urbanizazio-obrak garatu eta egikaritzeko, eremuaren 1,2.1 eta 2.2 partzelen artean eraikitako azken partzelaren lehen erabilerako lizentzia eman aurretik>>.*

Aurreikusitako kronograman islatutako denbora-egutegiari dagokionez, hirigintza buruak egindako txostenean jasotakora jotzen dut.

- Udalari doan laga beharreko lursailen kokapenaren proposamena:
Urbanizazio-obra berriak (urbanizazio 2. Fasean -4. Etapa- barneratutako lurretan kokatua) udal-administrazioari lagatzeari dagokionez, programan adierazten da zehaztutako faseekin bat egingo dela, egikaritu ondoren. Hortaz, esan daiteke udalak urbanizazio-obren harrerarekin batera jasoko dituela.

Hala, dokumentuan gehitzen da lurren lagapena, arlo formalean, birpartzelazio-proiektua jabetza-erregistroan inskribatzen denean egingo dela eta, arlo materialean, berriz, behin udalak jasotzean.

- Jendea beste etxe batzuetara eramateko programa:
Aurkeztutako dokumentuan ez da berriaz honi buruz hitz egiten baina, <<20.1 Amartz paper-fabrika>> azpiesparruko lurzoru guztiak, jabari eta erabilera publikoak izan ezik, VISESA erakundearenak direnez, ez dago birkokatzerik.
- Zuzkidura publikoetako urbanizazio-obra, lursailak eta, halakorik egotekotan, eskubideak lagatzeko epeak:
Aurkeztutako dokumentuan honi buruzko aipamenik ez da egiten baina, adierazi daiteke zuzkidura publikoetara zuzendutako urbanizazio-obrak jada urbanizatuta dauden lursailetan kokatzen direla.

3. Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

UJPren lehen aldaketaren dokumentuan sartu da bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa eta, besteak beste, honakoa adierazten da:

>>(…) Laburbilduz, **honako hau da KOSTU GUZTIEN (EK + UK + VU) balioa: 52.544.246,87 €.**

Baimendutako aprobetxamenduen salmentako balioari dagokionez, 2011ko plangintzan 63.317.000 euroko balioa eman zitzaion. Hala ere, gaur egun, zenbateko hori zaharkituta gelditu da, higiezinaren merkatuaren egungo eta etorkizuneko egoeratik eta etxebizitza askeen aprobetxamenduak murrizteko beharragatik (BOE-ena handitzeko), jarduketa bideragarri egiteko (HAPBaren aldaketaren xedea). Beraz, nabarmen murrizten da **DIRU-SARREREN aurreikuspena: 49.481.222 €.**



Hortaz, EMAITZA global negatiboa aurreikusten da: 3.063.420,04 €. Hala ere, zenbateko horrek ez du arriskuan jartzen jarduketaren garapena, dagoeneko egikaritu eta ordaindu egin baitira erosketari, kudeaketari eta lagapenari dagozkien zenbatekoak, baita urbanizazio publikoaren zati handiena ere, eta aurreikusten da defizit hori estaltzea dirulaguntza publikoekin».

Puntu honetan aipatzekoa da Tolosako Udalak eta VISESAk jada sinatuta dutela lankidetzeta-hitzarmen bat HAPBaren 2. Aldaketan jasotako 2.1.partzelan bizitegirako errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publikoko etxebizitzaren sustapena ahalbidetzeko, besteak beste, udalak sustatzen den etxebizitza bakoitzeko VISESAri 6.000 ordaintzeko. Hala, helburu berarekin baina, HAPBaren 2. Aldaketan jasotako 2.2.partzelari dagokionez, udala VISESArekin beste lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko bidean da.

4. Aurkeztutako UJPren lehen aldaketa jasotzen duen dokumentuaren egokitasuna.

«20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko Urbanizatzeko Jarduketa Programaren lehen aldaketa jasotzen duen dokumentu berriak (2024ko maiatzaren 15ean aurkeztutakoa) betetzen ditu hasierako onespena jaso duen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren bigarren aldaketaren dokumentuan jasotako zehaztapenak eta, baita, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, UJPei dagokionez, ezarritako zehaztapen materialak eta formalak.

(...)>>

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «20.1 Amarotz paper-fabrika» azpiesparruko urbanizatzeko jarduketa-programaren lehenengo aldaketa jasotzen duen dokumentuari (2024ko azaroaren 6an aurkeztutakoa).

BIGARRENA.- Erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Ataria egunkarietan argitaratzea. Eta, baita, udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarritz.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].



HIRUGARRENA.- Erabakia jarduketak eragindako ondasunen eta eskubideen titularrei jakinaraztea

5. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

2024/2523 Dekretua: 2024/25 faktura zerrendak

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

45. zenbaki duena, 175.590,78 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek



TOLOSAKO
UDALA

2024IGBA0027

EBAZTEN DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

45. zenbaki duena, 175.590,78 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:30ean.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0027-2024/11/19ko gobernu batzarraren akta/2024/11/19ko gobernu